

Imuntzo, Beloki, Maia eta Irazuk hasiko dute Trikibertsoa

Hileon ostiralero 2 egingo dira emanaldiak Bilborock aretoan

Montse Arregi / Bilbo

◀ Trikibertso saioei ekingo zaie asteon Bilborock aretoan. Trikitixa eta bertsoa uztartzen dituzten emanaldiak arrakastatsuak izan dira aurreko bi urteotan, eta

hirugarrengez antolatu dituzte Bilbao Bizkaia Kutzak (BBK) eta Serrano produktorak. Etzi Jon Maia eta Jexux Mari Irazu bertsolariak eta Imuntzo eta Beloki trikitilariak ariko dira arratsaldeko 20:30etatik aurrera.



XOUSE SIMAL

Xabier Amuriza eta Maixa trikitilaria Trikibertso egitarauko saio batean.

AURREKO ekitaldietako arrakasta ikusita, aurtengo Trikibertso saioak agertokiberean eta formula berberarekin antolatu dituzte BBKk eta Serranok. Datozen lau barikuetan 20:30etan izango dute hitzordua trikitixa zein bertsozaleek, eta agertokian bertsolari bi eta trikitilari taldea izango dira. Bakoitzak bere saiotxoa eskaini ostean batera ariko dira.

Imuntzo eta Beloki trikitilariak batetik eta Jon Maia zein Jexux Mari Irazu bertsolariak emango diote hasiera etzi aurtengo Trikibertsoari. Hilaren 17an, berriz, Ene bada! taldearekin batera Beñat Gaztelurrutia eta Igor Elortza bertsolariak ariko dira. Etzakit eta Sebastian Lizaso-Aitor Mendiluze izango da hilaren 24ko Trikiber-

tsoren emaitza. Aurtengo zikloa amaitzeko, hilaren 31n Gozategi taldearen eta Andoni Egaña zein Jon Sarasua bertsolarien emanaldia izango da. Iaz ere elkarrekin aritutakoak dira, eta esperientzia errepikatzea erabaki dute, orduan izandako arrakasta gogoratuta.

Aurtengo Trikibertsoaren egitaraua atzo aurkeztu zuten Bilbon Joserra Bilbao BBKko ordezkariak eta Gozategi taldeko Asier eta Iñigok. Goi mailako trikitilariak eta bertsolariak direla partaideak azpimarratu zuen antolatzailerak.

Urtetik urtera hobe

Gozategiko kideek nabarmendu zuten, «Trikibertson nolabaiteko feelinga lortu

dugu trikitilari eta bertsolarien artean». Urtetik urtera Trikibertso saioak hobera doazela deritzote. «Lehen urtetik bigarrenera ikuskizuna hobetu genuen argiago geneukalako egin beharrekoa. Aurtengo erronka jendearen partaidetza areagotzea izango da», azaldu zuten. Gozategi taldea, Sarasua eta Egaña Gasteizko Principal antzokian ere arituko dira hilaren 23an.

Duela urte batzuk izandako trikitilarien boomaz ere mintzatu ziren Gozategikoak. Euren ustez, onarri sendoa gelditu da eta datozen urteetan ikusiko da eskoletatik ateratako emaitza. Bertsolaritzan, plaza baino bertsolari gehiago dagoela uste du Bilboko. Emanaldi gehaigoren beharra ikusten du.

Mattin komikilariak irabazi du Portugaleteko lehiaketa

■ 'Hiru kafesne eta sei kurasan' lanarekin izan da

Erredakzioa / Donostia

◀ IÑAKI MARTIARENA Mattin marrazkilari eta EGUNKARIA-ko lankideak irabazi du Portugaleteko 14. Komiki Lehiaketaren sari nagusia. *Hiru kafesne eta sei kurasan* ipuingintza tradizionalaren parodia egiten duen lanarekin gailendu da Mattin lehiaketa horretan.

Txanogorritxu, Loti Ederra eta Mari Errauskin dira Mattinen komikiaren protagonistak. Hirurak ez daude batere gustura ipuingintza tradizionalarekin, eta idazle ete editoreen elkartera joan dira gauzak aldatzeko. Istorioa umorez kontatzen du Mattinek,

grafismo soil baten bitartez.

Euskal Herriko komiki lehiaketa garrantzitsuenetakoa da Portugaletekoa, eta ez da lehenengo aldia Mattinek sariren bat jasotzen duela bertan. Iaz, hain zuzen ere, kolore ataleko saria irabazi zuen.

Komikiengatik aparte, euskal prentsan ezaguna da Mattin, argitalpen askotarako egin baitu lan azken urtetan.

Horrez gain, ilustratzaile gisa Patxi Zubizarretarekin *Titanick* liburua argitaratu berri du, eta Amaia Elozegi bidaiariaren lan bat ilustratzen ari da Erein etxearentzat.

Latinoamerikar filmak ikusgai izango dira Maulen

■ Biarnoko lau aretorekin batera antolatua da saioa

Allande Sokarros / Maule

◀ PAUEKO Le Méliès zinetegiak urtero aurkeztu ohi duen latinoamerikar zinemaldiaren zabalteko xedez, Biarnoko Le Gabizos (Mourenx), Le Luxor (Olorue) eta Studio Cinéma (Orteze) eta Zuberoako Maule Baitha zinegelek CulturAmerica festibalaren sei filma eta dokumental bat zabalduko dute, martxoaren 8a eta 25a bitartean.

Azken urtetan zinema latinoarekikarrak eman dituen filmarik onenak bildu dituzte sail honetara eta egitarau interesgarria apailatu dute. Maulen ikusgai izango diren filmak eta hauen pantailaratze egunak hauek izango dira, beraz: gaur arratsean bertan eta datorren ostiralean —martxoak 8 eta 10— 21:00etan— Wim Wendersen *Buena Vista Social Club*; martxoaren 9 eta 14ean —20:15etan— Artu-

ro Ripsteinen *El coronel no tiene quien le escriba*; martxoaren 13an —20:30etan— *Martin Hache*; martxoaren 15ean —21:00etan— Fernando Perezen *La vida es silbar*; martxoaren 17an —21:00etan— Sergio Cabreraren *La estrategia del caracol* eta martxoaren 20an —20:30etan— Marisa Sistach eta Jose Builen *El cometa*.

Animazio bereziak

Bi gaualditan animazio bereziak izango dira, berriz: martxoaren 10ean *Buena Vista Social Club* filmaren ostean Kubako musika kontzertu bat egongo baita eta martxoaren 16an —20:30etan— Mexikoko Txiapas eskualdeko egotzez dokumental bat izango baita eta honen ostetik mintzaldi-egtabaida bat Carlos Montemayor idazle, olerkari eta politika azterlariarekin.

IRAGARKI MERKEAK 9 4 3 3 0 0 2 2 2

